



**"OFF LOKAL" PROGRAMAREN BAITAN TOKIKO  
SORTZALEEN PROPOSAMEN  
ESZENIKOAK HAUTATZEKO DEIALDIA  
ANTZERKIA OHIKOEZ BESTELAKO ESPAZIOETAN - 2026**

AURKEZPENA:

GASTEIZKO NAZIOARTEKO 51. ANTZERKI JAIALDIAK, Udalaren Antzoki Sarearen bitartez, "OFF LOKAL" programaren edizio berri baterako deia egiten du, TOKIKO SORTZALEEI zuzenduta eta antzerkia ohikoez bestelako espazioetara eramatea helburu.

Sorkuntza eszeniko berria eta tokiko sorkuntza erraztu eta sustatzeko asmoz, programa hau osatuko duten sei proposamen eszeniko hautatzeko deialdia aurkezten dugu. Lan horiek koproduzituak izango dira, artista hautatuen eta UDALAREN ANTZOKI SAREAREN artean, NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN bitartez.

Proposamenak aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, deialdia udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

OINARRIAK:

Lehena: deialdiaren xedea

Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailaren baitako Antzoki Sareak egiten du deialdi hau, koprodukzioko sei proposamen eszeniko hautatzeko (3 euskaraz eta 3 gazteleraz), OFF LOKAL programaren baitan antzez daitezen GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIAREN 51. EDIZIOAN.

Kontuan izan behar da proposatutako piezak ikusle kopuru mugatu baten aurrean erakusteko asmatu behar direla, eta antzezpen-espazio batean bideragarriak izan behar dutela, hurbiltasuna funtsezko faktorea baita.

Bigarrena: eskakizunak

- Jarduera eszenikoan diharduten konpainia profesional nahiz erdi-profesionalak aurkeztu ahal izango dira, egoitza soziala Gasteizen edo



Arabako Lurralde Historikoan dutela egiaztatzen dutenean.

- Proposamen eszenikoa idatzi, prestatu eta antzezteko gaitasuna duten dramaturgo, zuzendari eta antzezleek osatutako taldeak izan beharko dira.
- Proposamen eszenikoek 15 eta 20 minutu arteko iraupena izan beharko dute, eta edizio honetan Koroatze auzoan egongo da<sup>1</sup>, gerora sortutako inguruabarrek kokapen horretan egitea gomendatzen ez badute salbu.
- Sarrerren salmenta Udalaren Antzoki Sareak hartuko du bere gain, eta hari dagokio salmenta, prezio eta deskontu politikak eta leihatilako sarrerren bilketa.
- Gaia librea izango da.
- Proiektuak euskaraz edo gaztelaniaz antzeztu beharko dira, edo testurik gabeko ikuskizunak izan daitezke.
- Parte-hartzaile bakoitzak hainbat istorio eta gune proposatu ahal izango ditu.
- Aurkeztutako proposamenen artean, epaimahaiak egokienak hautatuko ditu, eta horietako batzuk in itinere (hots, gune eszeniko batetik beste baterako bidean) emateko aukera gordeko du.
- Aukeratutako proposamenak horretarako prestatutako espazioetan antzeztuko dira, eta konpainiek proposatuko dituzte, GASTEIZKO NAZIOARTEKO 51. NTZERKI JAIALDIAREN barruan. Data lehiaketaren gainerako programazioaren arabera zehaztuko da, eta litekeena da 2026ko irailaren 24tik 27ra eta urriaren 1etik 4ra egitea. Udalaren Antzoki Sareak, dela zerbitzuaren beharreatatik, dela beste arrazoi batzuegatik, datak aldatzeko eskubidea gordetzen du, eta proposamen eszenikoei lehenbailehen jakinarazi beharko die.
- Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren antolatzaileek ez dute baliabide teknikorik jarriko.
- Ez da antzezteko espazio zehatzik ezarriko (Gasteizko Koroatze auzoan mugatuta egotetik harago), baina, proposatutako espazioek irisgarriak izan behar dute dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat, eta segurtasunari eta larrialdiei buruzko araudia bete behar dute.
- Egunean bi emanaldi ezarri dira hiru proposamenetarako, segidako 3 egunetan edo ondoz ondoko bi asteburutan banatuta, eta Udalaren Antzoki Sareak zehaztu beharko ditu.
- Sei proposamen dramatikoak aukeratu ondoren, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren antolatzaileekiko koordinazio-lanak egingo dira.

---

<sup>1</sup> "Koroatze" da honako kale eta plaza hauek hartzen dituen espazioa:



- Espazioak beren testuinguru errealean edo fikziozko testuinguru batean erabil daitezke, eta Gasteizko Koroatze auzoan egon behar dute, gerora sortutako inguruabarrek ez badute eragozten kokapen hori erabiltzea; gainera, ekoizpenerako bideragarriak izan beharko dute, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak bete beharko dituzte eta jendearentzako ibilbidea erraztu beharko dute.
- Udalaren Antzoki Sareak beretzat gordetzen du pieza desberdinetarako proposatutako espazioak berrikusteko eta berresleitzeko eskubidea, publikoa denboran eta distantzian toki batetik bestera joan daitekeela bermatzeko.
- Proposamenak aurkezteak esan nahi du sortzaileek aurreko baldintzak onartzen dituztela.

### Hirugarrena: balioespen-irizpideak

Proposamenak baloratzekoan gehienez ere 100 puntu emango dira, eta gutxienez 50 puntu beharko dira lehiatzeko aukera izateko.

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
<b>1. Produkzio-proiektuaren balorazio artistikoa.</b> Produksioan inplikaturako elementu hauek hartuko dira kontuan  1.1: Jatorrizko ideia, testuak, dramaturgia edo koreografia, eszenografia, jantziak, argiztapena...  1.2: Berrikuntza artistikoa: lengoia/dramaturgia berrien garapena.  1.3: Diziplina artistiko desberdinen elkargunea.  1.4: Bideragarritasun ekonomikoa (aurrekontua)  1.5. Bideragarritasun teknikoa	<b>1.1: 40 puntu</b> <b>1.2: 10 puntu</b> <b>1.3: 5 puntu</b> <b>1.4: 5 puntu</b> <b>1.5: 5 puntu</b>
<b>2 Pertsona edo erakunde eskatzailearen eta parte hartzen dutenen ibilbidearen balorazioa.</b>  2.1: Proiektuan parte hartzen duten pertsona guztien curriculum (artistak, teknikariak, etab.).  2.2: Deialdian parte hartzea eskatzen duenaren ibilbidearen balorazioa (pertsonek edo erakundearen CV).  2.3: Eskatzen duen pertsonak edo erakundeak edo parte hartzen dutenek bitartekotza-ekintzetan eta proposamen inklusiboetan duten esperientzia.	<b>2.1: 5 puntu</b> <b>2.2: 4 puntu</b> <b>2.3: 3 puntu</b>



<p><b>3. Proiektuaren interesa:</b></p> <p>3.1: Proposamenean sustatzen diren balioen interesa (tolerantzia, kultura-aniztasunaren ezagutza, espiritu kritikoa, ingurumena, etab.).</p>	<p><b>3.1: 7 puntu</b></p>
<p><b>4. Proposatutako jardueran euskara erabiltzea.</b></p> <p>4.1: Euskarazko bertsioa egotea.</p> <p>4.2: Euskararen erabilera baloratzea (lan- hizkuntza, materialak, komunikazio-hizkuntza den...)</p> <p>Irizpide hau ez da aplikatuko testu batean oinarritzen ez diren proiektuetan; beraz, proiektu horien balorazio osoa egiteko formula hau aplikatuko da: lortutako puntuazioa X 100/9</p>	<p><b>4.1: 5 puntu</b></p> <p><b>4.2: 5 puntu</b></p>
<p><b>5. Emakumeek aurkeztutako proiektuan parte hartzea.</b></p> <p>5.1: Emakumeen presentzia produkzio-proiektuan inplikaturako pertsona guztietan: emakumeak kontratatzea, emakumeak ardura- edo gerentzia-karguetan egotea, gizarte-desabantailan dauden emakumeak kontratatzea, etab.</p> <p>5.2 Azaldu nola txertatu den genero-ikuspegia proiektuan: berdintasun-plana (egonez gero), ekintza positiboko neurriak, kontziliazio-neurriak, hizkuntza inklusiboaren erabilera, etab.</p>	<p><b>5.1: 5 puntu</b></p> <p><b>5.2: 5 puntu</b></p>

### Laugarrena: epaimahaia eta hautatze-prozesua

**Batzordea hautaketa komite** baten bidez eratuko da. Komite hori hiru pertsonak eta Antzoki Sareko teknikari batek osatuko dute, eta azken hori idazkari teknikoa izango da.

Hautaketa Batzordeko titularrak eta ordezkioak:

- Marta Monfort, Udal Antzoki Sareko burua
  - o Ordezkoa: Edurne Rey Delgado
- Mireia Gabilondo, dramaturgoa, zuzendaria eta interpretea.
  - o Ordezkoa: Patxo Tellería, interpretea eta dramaturgoa
- Pilar López, kultur bitartekaria eta audientzien garapenean aditua.
  - o Ordezkoa: Kepa Errasti, interpretea eta dramaturgoa



Azaldu nola txertatu den genero-ikuspegia proiektuan: berdintasun-plana (egonez gero), ekintza positiboko neurriak, kontziliazio-neurriak, hizkuntza inklusiboaren erabilera, etab.

Proiektuak hautatzeko BALIOESPEN-IRIZPIDEEN atalean adierazten dena izango da kontuan.

Ebazpenak idatziz jakinaraziko zaizkie interesdun guztiei.

#### Bosgarrena: zenbatekoa

- Hautatutako proposamen bakoitzak 4.000,00 € (BEZa barne) jasoko ditu antzezpenen ordainetan.
- Antzezlanak ekoiztu eta gauzatzetik sortzen diren gastu guztiak hartuko ditu bere baitan ordainketak.
- Kontratua egingo da hautatutakoekin, atal honetako lehenengo paragrafoan adierazitako zenbatekoan, LCSP 2017 Legean ezarritakoari jarraituz.
- Ordaindu aurretik faktura aurkeztu beharko da. Ordainketa bi epeetan egingo da: % 75a kontratua sinatzen denean eta gainerako % 25a errepresentazioen ondoren.

Hautatutako proiektuek, gainera, Off Lokal Araba zirkuitu sortu berriaren parte izan ahal izango dira. Zirkuitu hori Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak antolatzen du, Gasteizko Udalarekin lankidetzan, Off Lokala egin baino lehen. Zirkuitu hori Arabako hainbat herritan egingo da. Zirkuitu horren antolaketa (datak, kokalekuak, cachea eta ordainketak, etab.) administrazio horri dagokio.

#### Seigarrena: proposamenak aurkezteko epea eta lekua

- Proposamenak 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdia udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera legez aurreikusitako gainerako moduetan.

#### Zazpigarrena: behar diren agiriak

Honako hauek bildu beharko ditu bere baitan proposamenak:

- Eskabide-orria beteta.



- Testuaren aurrerapena, ahozko hizkuntza erabiltzen duten obretarako, eta dramaturgia-proposamena.
- Proposatutako espazioa eta proposamenaren arrazoiketa.
- Konpainiaren curriculum laburra.
- I. eranskina, behar bezala beteta.
- Aurkeztutako proiektuaren originaltasuna eta hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratzen ez dituela egiaztatzen duen adierazpena, sinatuta (II. eranskina).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta sektore publikoarekin kontratatze debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

#### Zortzigarrena: deialdia ebazteko epea

Hautaketa komiteak eskubideak eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta ebaluatuko ditu, deialdi honen 3. puntuan ezarritako irizpideen arabera. Eskaerak baloratu ondoren, Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkariak gehienez ere 20 egun balioduneko epean ebaztuko du deialdia, eskubideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Deialdi honen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta emaitza udalaren webgunean argitaratuko da.

#### Bederatzigarrena: onuradunaren betebeharrak

- Hautatutako konpainiek erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko dute, gutxienez 150.000,00 euroko berme-mugarekin. Poliza horrek hirugarrenei eragindako kalteak estali beharko ditu, eta, hala badagokio, ekintza egiten den espazioan edo lokalean sortutakoak.
- Proiektua deialdian aurreikusitako epean eta baldintzen arabera egitea.
- Onarpena idatziz berrestea, gehienez 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita (IV. eranskina). Behin onarpena berretsi ondoren, Antzoki Sarea hautatutako obra edo konpainia ordezkatzeko duen pertsonarekin harremanetan jarriko da. Ondoren, kontratu bat sinatuko da eta hura egiteko klausula espezifikoak ezarriko dira.
- Aurkeztutako proiektuan egiten den edozein aldaketa idatziz jakinaraztea.
- Aurkeztutako proiektua proposamen originala dela eta hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratzen ez dituela adieraztea. Gainera, baieztatzea obra ez dela osorik edo zati batean aurkeztu Antzoki Sareak ezarritako jarraibideen arabera aurkeztu arte.



- Antzoki Sareak lagatako espazioak eta azpiegiturak erabiltzeko agintzen dituen arauak betetzea.
- Proiektuak behar bezala jakinarazteko behar den informazio eta dokumentazio guztia ematea, eta, beharrezkoa izanez gero, Gasteizko Udalarari proposamen eszenikoan sortutako irudiak erreproduzitzeko eta jendaurrean komunikatzeko eskubidea lagatzea.
- Antzoki Sareak emango die publizitatea proposamenei, ezarritako irizpideen arabera.

#### Hamargarrena: oinarriak interpretatu eta onartzea

- Oinarri hauen interpretazioan sortzen den zalantza oro Gasteizko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak argituko du.
- Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da laguntza bertan behera geratzeko, horrek ekar dezakeen erantzukizuna gorabehera.

## GASTEIZKO ANTZOKI SAREA GASTEIZKO NAZIOARTEKO ANTZERKI-JAIALDIA KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

1. eranskina – Datuen laburpen-taula.
2. eranskina – Obraren originaltasunaren erantzukizunpeko adierazpena.
3. Eranskina - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
4. eranskina – Onarpen-gutuna.



## I. eranskina - Datuen laburpen-taula

### **Fakturarako/kontraturako datuak**

Betetzen diren datuak kontratua formalizatzeko, fakturak egiteko eta komunikatzeko (aldizkaria, webgunea, etab.) erabiliko dira.

Kontratua eta faktura konpainia edo elkarte baten izenean egiten badira:

- Konpainia edo elkarte:
- IFZ:
- Konpainia/Elkartea ordezkatzeko duen pertsonaren izen-abizenak, kontratua sinatzeko aukera duena (justifikatuta):
- NAN:

Kontratua pertsona fisiko baten izenean egiten bada:

- Kontratua sinatzen/faktura egiten duen pertsonaren izen-abizenak:
- NAN:

### **Harremanetarako datuak**

- Harremanetarako telefonoa:
- Posta elektronikoa:
- Posta helbidea, jakinarazpenetarako:

### **Obraren datuak**

- Deialdira aurkeztu den obraren izena:
- Diziplina artistikoa:
- Iraupena:
- Proposatutako espazioa:
- Hizkuntza:
- Interpretak:

### **Egile-eskubideak:**

- adierazi erakunde kudeatzailea eta ehunekoa



Lekua, data eta sinadura.

**II. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpena  
- obraren originaltasuna eta hirugarrenen jabetza intelektualeko  
eskubideak errespetatzea -**

\_\_\_\_\_, bere izenean edo \_\_\_\_\_ ordezkatzuz  
(NAN/IFK: \_\_\_\_\_; helbidea: \_\_\_\_\_),

ADIERAZTEN DU:

xxxxxxx obra antzezteko aurkeztutako proiektua "OFF LOKAL" TOKIKO  
SORTZAILEEN PROPOSAMEN ESZENIKOAK OHIKOEZ BESTELAKO  
ESPAZIOETAN 2026 programaren esparruan proposamen eszenikoak hautatzeko  
deialdira aurkezten da, obra originala da eta ez diru hirugarrenen jabetza intelektualeko  
eskubideak urratzen.

Lekua, data eta sinadura.



### III. Eranskina - Erantzukizunpeko adierazpena

**- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta sektore publikoarekin kontratatzeko debekurik ez izatea.**

\_\_\_\_\_, bere izenean edo \_\_\_\_\_  
ordezkatzuz (NAN/IFK: \_\_\_\_\_; helbidea: \_\_\_\_\_),

**ADIERAZTEN DU** (markatu x-rekin)

\_\_\_ Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez duela.

\_\_\_ Zerga-betebeharrak egunean dituela.

\_\_\_ Indarrean dauden xedapenek Gizarte Segurantzarekiko ezartzen dituzten betebeharrak egunean dituela.

Lekua, data eta sinadura.



#### IV. eranskina - Onarpen-gutuna

**DEIALDIAREN EBAZPENA ONARTZEA ETA KONPROMISOA ADIERAZTEA, “OFF  
LOKAL” ANTZERKIA OHIKOEZ BESTELAKO ESPAZIOETAN 2026 PROGRAMAREN  
BAITAN TOKIKO SORTZAILEEN PROPOSAMEN ESZENIKOAK HAUTATZEKO  
DEIALDIAN JARDUERAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ**

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN zenbakia duena, \_\_\_\_\_  
erakundearen legezko ordezkari gisa (IFZ: \_\_\_\_\_)

\_\_\_\_\_ (e)ko behin betiko ebazpen-proposamenari lotuta, \_\_\_\_\_(e)ri 4.000 euroko  
(lau mila euro) dirulaguntza ematea proposatu da, \_\_\_\_\_ obra egiteko, “OFF LOKAL”  
ANTZERKIA OHIKOEZ BESTELAKO ESPAZIOETAN 2026 PROGRAMAREN BAITAN  
TOKIKO SORTZAILEEN PROPOSAMEN ESZENIKOAK HAUTATZEKO DEIALDIAREN  
arabera aurkeztutako eskabideari jarraiki:

ONARTU EGITEN DU, idazki honen bidez, “OFF LOKAL” ANTZERKIA OHIKOEZ  
BESTELAKO ESPAZIOETAN 2026 PROGRAMAREN BAITAN TOKIKO SORTZAILEEN  
PROPOSAMEN ESZENIKOAK HAUTATZEKO deialdiaren esparruan, 2026ko \_\_\_\_\_ (e)ko  
behin betiko ebazpen proposamena, eta aipatutako deialdiaren xede den jarduera egiteko  
konpromisoa hartzen du.

Laguntza onartzeak deialdian ezarritakoa onartzea dakar.

UKO EGITEN DIO, idazki honen bidez, “OFF LOKAL” ANTZERKIA OHIKOEZ BESTELAKO  
ESPAZIOETAN 2026 PROGRAMAREN BAITAN TOKIKO SORTZAILEEN PROPOSAMEN  
ESZENIKOAK HAUTATZEKO 2026ko \_\_\_\_\_ (e)ko deialdiaren behin betiko ebazpen  
proposamenari, eta, ondorioz, aipatutako deialdiaren xede den jarduera egiteari.

Ondorio guztietarako jasota gera dadin, Gasteizen sinatu da, 2026ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)(a)n.

LEGEZKO ORDEZKARIA